

IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO PUNTUEN ERABILERA ETA USTIAPEN ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN EMAKIDA ESKAERA DELA ETA, KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak erabilera eta ustiapen Energiaren Euskal Erakundearen emakida dela-eta, Udaltzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Ogasun Batzordean 2019ko urtarrilaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko urriaren 10ean, Energiaren Euskal Erakundeak ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak erabilera eta ustiapen emakida eskaera egin zion Donostiako Udalari. Tokiko Gobernu Batzordeak abenduaren 4an eskaera onartu zuen: “Administrazio emakida zuzenean ematea EEERi, erabilera pribatiboa izan dezaten. Bermingham, Hernani eta Elias Salaberria kaletan”. Kale hauetan erreforma azpiegiturak operatibo dauden arren, ez da inolako zerbitzurik eskaintzen ari.

Emakidaren baldintzak honako hauek dira:

- Emakidan ematen diren lursailei beren izaerari dagokien erabilera eman beharko zaie eta eskusiboki bideratu ibilgailuen erreforma elektrikoak azpiegituraren ustiapenera: zehazki, aipatutako azpiegituraren kudeaketa teknikora eta monitorizaziora eta bere mantentura.
- Emakida bi urterako izango da, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, bi aldeak ados izanez gero eta berariaz hala eginez gero.
- Emakida doan egingo da. Aitzitik, EVE-EEEk emakidaren objektu diren espazioen erabilera lagapena egiten badu zutoin elektrikoak ustiapenaz eta mantenuaz arduratuko den agente pribatu baten alde, eta entitate horrek okupatutako espazioko jardueratik etekinik lortuko balu, emakidadunak edo bere kasuan lagapendunak ondasunak erabiltzeagatik urteko 565 €ko tasa bat ordaindu beharko du; okupatutako jabari publikoaren balioaren (9.350,11) % 6ari dagokiona.

Baldintza batzuk ez ditugu ulertzen. Emakidak pribatu baten alde erabilera lagapena egin dezakeela? Eta honek etekinik lortuko balitu, espazio publikoa erabiltzeagatik, 565 euro bakarrik urtero ordainduko lukeela?

Gogorarazi nahi dugu Donostiako Sustapenaren Kontseiluan erreforma elektrikoari buruz ikerketa

